

Nokia hegoak astintzen hasi da

Sakelakoen merkatuko nagusiak erorikoa izan zuen smartphoneak hedatzearekin batera. Berrito indarrez dator: sare optikoen hornitzaileen podiumera igo nahi du.

Kristina Martin

90eko hamarraldian hasi, eta, hogeit bat urtez, sakelako telefonoen ekoizle nagusia izan zen Nokia. 2007a, ostera, mugarrizko enpresa horrentzat: Apple iPhone smartphonea merkaturatu zuen, ukipen pantailarekin eta aplikazio erakargarriak betetako denda batekin. Nokiak, garai batean sakelakoen negozioaren lema eraman zuen arren, ez zuen erreakzionatu, eta urte gutxi baten buruan lidergoa galdu zuen.

Gainbeheraren ondoren, gordetara aritu da lanean, eta telekomunikazioetako azpiegiturretan bereizi da orain. Azken urtebetean, gerizpetik atera eta berriro egin du jauzi negozio arrakastatsuen plazara. Sakelakorik ez, baizik eta adimen artifiziala eta datuen zentro erraldoiak elikatze beharrezkoak diren sare optikoak garatzen nabarmendu nahi du aurrerantz.

XX. mendearen amaieran hasi zen sakelako telefonoen erabilera gizartearen hedatzen, eta Nokia markakoak izan ziren nagusi jendearen patriketan. *Connecting people* (jendea harremanetan jartzen) Finlandiako enpresaren lelo ospetsuak benetako esangura hartu zuen, mundu osoko eskuko telefonoen %40 Nokia markakoak baitziren. Audio deliak egiteko eta SMS mezuak bidaltzeko, oro har, eta tarteka Snake jolas ospetsuan aritzeko ere baliatzen zen orduan eskuko telefonoa.

Harik eta, 2007an, AEBetako Apple enpresak iPhonea merkaturatu zuen arte. Telefonía mugikorraren merkatua irauliko zuen lehen pausoa izan zen hura. Ondoren etorri zen Samsung Galaxy gailua. Nokiak ez zuen asmatu merkatuaren joera berrietara moldatzen, eta, *Toy Story* filmean Woody jostailuzko cowboyari gertatu zitzaion bezala, Nokia eskuko telefono mitikoak ere kaxoian gordeta geratu ziren.

Nokia, garai bateko enpresa aitzindaria, estropezu latz haren ondorioak kudeatzen aritu da azken urteotan —milioi askoren galerak eta milaka langileren kaleratzeak—, baina ahulezia aurrera bihurtu du, eta estrategia berri bat abiatu du: zuntz optikoan, IP sareetan eta routerretan bereiz-



Nokia telekomunikazio enpresak Espoo hirian duen egoitzaren irudia. JUANJO GALAN / EFE

tea, osagai horiek funtsezkoak baitira zabalpen bizkorrean ari diren datu zentro erraldoiek, adimen artifizialak eta hodeiak behar bezala funtziona dezaten. Gainera, sakelakoen merkatuan liderra izan zen bezala, orain ere arlo horretan munduko hornitzaile handiena izatea du erronka.

Zuntz optikoa

Nola lortu zuen, baina, gain behe-za zihuan enpresa horrek teknologiarren merkatuan berriro nabarmena izatea? Bada, sakelakoen bilakaeran izan ez zuen negozio sena erakutsi du orain. 5G sarea garatzeko inbertsioak espero baina motelago zihoazela ikusita, sare finkoen aldeko apustua egin du. Negozio lerro horretan aurrera egiteko, zuntz optikoan bereizita dagoen enpresa bat erosi zuen iazko otsailan, AEBetako Infinera enpresa. 2.000 milioi euroko erosketa horri etekina ateratu dio Nokiak, AEBetako merkatuan zuen tokia indartu baitu, eta mundu osoan zuntz optikoaren hornitzaileetan bigarren bihurtu baita, Txinako Huaweiaren atzetik.

Teleoperadoreak dira Nokia-

ren bezero nagusiak, eta horiekin batera AEBetako konpainia teknologikorik boteretsuenak bereganatu ditu: Google eta Microsoft, kasurako, zeinak adimen artifiziala garatzen eta mundu osoan datu zentroak egin eta egin ari diren. Benetako aldea, ordea,

Nvidia txipen fabrikatzaile handienarekin sinatutako lankidetzak hitzarmenaren bidez lortu zuen Nokiak.

Nvidia, giltzarria

Nvidiak —burtsan munduko baliarik handiena duen enpresa— Nokiarren akzioen %2,9 erosi zituen mila milioi euroren truke. Biek, gainera, itun estrategiko bat sinatu zuten irrati bidezko sarbide sareetatik adimen artifizial natiboa duten sareetarako trantsizioan buru izateko, baita 6G telefonía mugikorra sustatzeko ere.

Adituen iritziz, Europako enpresa bat izateak ere mesede egiten dio. Izan ere, telekomunikazioetako enpresa boteretsuenak —Huawei eta ZTE, adibidez— Txinakoak dira, eta Mendebaldeko herrialde nagusietan ez dira haietatik finko. Susmoa dute teknologia baliatzen dutela Txinako Gobernuarekin elkarlanean espioitza egiteko. Hori dela eta, ia Europa osoan, Japonian eta AEBetan enpresa horiei beto jarri diete, eta horrek bidea zelaitu dio Nokiarri. ●

HITZ
GUTXITAN

Labrazako parkean inbertitu dute 88 arabarrek

Helburuak bete ditu Labrazako parke eolikoaren sustatzaileek abiatutako ekinaldi berritzaileak, eta Arabako 88 herritar inbertitzaile izango dira haize errotaren zentrala eraikitze-ko diruaren parte batean. Urtero bermatutako %7ko interes tasa finkoaren truke inbertitzeko eskaerak —guztira 6,5 milioi euro— gaititu egin du ekarpenetarako eskaintako hiru milioi euroko kopurua. *Crowdfunding* edo mailegu gisako finantzaketa kolektiborako tresnaren bidez, herritarrek hiru milioi euro jarri dituzte, eta horietatik %16, hain zuzen, 5.000 euroren partaidetza dira; %42, berriz, 25.000 euro arteko ekarpenak; eta gainerako %42a, 25.000 eurotik gorakoak. Labrazako, Gorrebustoko eta Oiongo biztanleek 1,1 milioi jarri dituzte. Haiei Arabako Errioxakoak gehituta, ekarpen eskarien %60 bete dituzte. Arabako herritarrenak dira beste 1,7 milioi euro.

«Zapalduen» sindikatua dela esan du ELak

EIBAR— ELak frankismo osteko bere lehen kongresuaren 50. urteurrena ospatu zuen atzo Eibarren (Gipuzkoa), Astelenan, eta orduko afiliatuak omendu zituen. Mitxel Lakuntzak esan zuen ELA oraindik ere «zutik, indartsuago eta ilusio handiagoz» dagoela.

Lagardek ez du EBZ aurrez uzteaz baxtertzen

2027ko urrian amaituko da Christine Lagardek EBZko lehendakaritza, baina esan du kargua agian lehenago utziko duela Frantziako politikara itzuli ahal izateko. Frantziako lehendakaritza hauteskundeak egingo dituzte datorren urteko apirilaren.



%124

AKZIOEN AURTENGO IGOERA. Lehen hiruhilekoan 350 milioi fakturatu zituen adimen artifizialaren sareen negozioan eta hodeien eskaintzen diren zerbitzuetan —%49ko hazkundea—.